



DEUSTUKO IKASTETXE NAGUSIKO

Printzipioak eta arauak

I. Deustuko Ikastetxe Nagusiko Printzipioak eta Arauak

Deustuko Ikastetxe Nagusia, ikasleei, irakasleei eta unibertsitate mailako heziketari loturiko pertsoneri zerbitzuak eskaintzen dizkien Deustuko Unibertsitateko erakundea da eta Jesusen Lagundia da beraren jabea.

- Ikasleen garapen pertsonala sustatzen du, kalitatezko egoitza, ikasteko giroa eta prestakuntza eskainiz.
- Elkarbizitza, elkarri laguntzea, askatasunaren erabilera arduratsua eta parte-hartzea sustatzen ditu, horretarako, hurbil eta eskuragarri duelarik erakundeko langileria osoa.
- Ikasle bakoitzak bere bizitzari zentzua emango dion proiektua aurkitu eta marraztu dezan laguntzen du.

Bere zerbitzuaren etengabeko hobekuntzan konprometitzen da, ikastetxeko lankide guztien laguntzaz. Ikastetxe Nagusi honek, 1961eko otsailaren 18ko Ministerioaren Aginduaren aitortpena du.

II. Ikastetxe Nagusiak sustatu nahi dituen balioak eta jarrerak

Ikastetxe Nagusiaren leloak, "Maitatu eta Zerbitzatu", ikastetxeko bizitza gogo berotu behar duen espiritua adierazten du. Deustuko Ikastetxe Nagusiaren balioak eta helburuak berau kristau inspirazioko zentro unibertsitario gisa definitzearen ondorio dira. Hori kontuan izanda, honakoa sustatu nahi du:

- **Elkarte zentzua, entzutea, tolerantzia eta errespetu aktiboa**, elkarbizitzaren bidez eta ikastetxeko eguneroko bizitzan parte hartuz.
- **Erantzukizuna eta lan egiteko ohitura**, denbora osoan lanariekin.
- **Elkarlaguntza eta talde-lana**, bai ikasketetan eta bai ekimenak garatzean: harrera eginez eta ikaskideei babesa emanez.
- **Askatasunaren erabilera arduratsua**, denbora eta gauzak erabiltzean, norbere egintzez arduratuz.
- **Hausnarketa**, bakoitzak bere asmoekin bat datorren bizitza-plana eratu dezan, zentzu transzendentea emanez.
- Partaidetza eta herritar zentzuna sustatuko duen **gizarte konpromisoa**, ikastetxeko elkarte eta gure ingurua aberastu eta hobetuko duten zereginak eta ekimenak nork bere eginez.
- **Gaitasun pertsonal guztiak garatzea** besteen zerbitzura jartzeko .
- **Fedea heltzea, garatzea eta ospatzea**, hala egin nahi dutenen kasuan.

III. Ikasketa eta Prestakuntza

- Ikastea da ikastetxe bizitzako lehen betebeharra. Ikastetxeko elkarte osoari dagokio ikasketarako baldintza egokiak sortu eta sustatzea. Beraz, betebeharrak akademikoak betetzea exijituko zaio egoiliar bakoitzari, eta baita ikasketarako giroa sortzen laguntzen duen portaera ere.
- Ikastetxearen egitekoa da ikasle guztien prestakuntza integratuz laguntzea. Guztien parte-hartze aktiboaren bidez egingo da prestakuntza ko jardueren antolaketa.
- Nahi duten ikasleei prestakuntza erlijiosoa bermatuko zaie, bakoitzaren askatasunarekiko errespeturik handiena izanez.
- Kontzientzia soziala. Guztien helburu izan beharko litzateke gizarte errealitateen ezagutza handiagoa izatea, eta komeniko litzateke zuzeneko jarduera sozialen batean parte hartzea. Ikastetxeko bizitzak benetako adiskidetasuna, besteentzako zerbitzua eta erantzukizun soziala sustatuko ditu.
- Elkarbizitzaren giza aberastasuna. Elkarbizitzak zenbait abantaila ditu berekin eta ordainez zenbait muga ere ezartzen dizkio ikasle bakoitzaren jokaerari.
- Elkarbizitzaren abantailak hauek dira: izaera eta pentsaera anitzeko jendearekin harremanak izatea, horrek berekin dakarren giza aberastasuna, lagunarte giroa, elkarri laguntzea eta benetako adiskidetasuna.
- Saina elkarbizitzak bere mugak ere ezartzen ditu, pertsonak, ordutegiak eta besteen zereginak errespetatu beharrez dakartzen mugak, hain zuzen ere.
- Kultur,jolas eta kirol jarduerak norbere ikasketek behar duten lanarekin bateragarriak izan behar dira.
- Ikasleek horretarako sortutako batzordeen bidez hartuko dute parte jardueretan.
- Zuzendaritzak deitutako bilera eta ekitaldietara joatea nahitaezkoa da.

IV. Elkarbizitza Arauak

- Ikastetxeak dituen bitartekoen artean, bertako elkarte bizitza da lehen-lehena.
- Ikastetxe Nagusi honen izaera ezin da ezarria izan, ikasleek libreki onartua baizik. Beraz, bere helburuekin bat egitea eskatzen du. Ikastetxean askatasun giroa izango da nagusi, elkarbizitzako oinarri izko arauarekin bateragarriak izan eta helburuak betetzera bideratuta.

Denonak diren gauzen erabilera

- Denon gauzen erabilera erakusten du gure erantzukizun sozialaren garapen maila. Horiek errespetatuz adierazten da erantzukizuna, eta elkarbizitzarako gehien erabiltzen diren gelak garbi edukiz eta zainduz batez ere.
- Ikastetxeko gauza materialen erabilera okerrak eragindako kalteen konponketa jokabide horien arduradunek hartu beharko dute beren gain. Kalteen egileak ezagutzerik ez badago, solairu edo dorre horretako ikasle guztien artean banatuko da zenbatekoa eta gordailutik kenduko da.

Gelak

- Ikasle bakoitzak bere logela izango du eta ordenatuta eta garbi eduki beharko du. Bertako tresnak eta altxariak garbitasunerako oztopo ez izateko erantzerik jarrita egon beharko dira. Ikasle bakoitza izango da bere logelaren eta bertako gauzen arduradun.
- Debekatuta dago su-detektagailuak edo bestelako segurtasun elementu batzuk manipulatzeko.
- Behar diren konponketak Harreraren eskatu beharko dira, horretarako prestatuta dauden sistemak bidez.
- Logela aldaketak zuzendaritzari eskatuko zaizkio, eta honen ardura izango da erabakia hartzea.

Ordutegiak

- Ikasleak betebeharrak akademikoek eskatzen dieten orduan jaiki beharko dira eta, nolana ere, ez diete oztoporik sortuko garbiketa eta mantentze lanetan diharduten ikastetxeko enplegatuei.
- Lehen urteko ikasleek, lehen hiruhilekoan, lanegun bezperetan, gauerdia baino lehen itzuli beharko dute ikastetxera eta ostiraletan eta jai bezperetan 3:30etan itzul daitezke. Ikasturteko gainerako hilabeteetan, bigarren urteko ikasleek bezalaxe, goizeko 3:30ak baino lehen egon beharko dute ikastetxean lanegun bezperetan, ostiraletan eta jai bezperetan beren esku gelditzen delarik itzulera ordua. Ikasle nagusiek gauzez ikastetxera zer ordutan heldu erabaki ahal izango dute. Behin bertara iritsitakoan, isilik sartuko dira beren logeletara, lotaratuta daudenak ez esnatzeko. Zuzendaritzak kargu hartu ahal izango diete ordutegitik kanpo heltzen direnei edo ganoragabe heltzen direnei eta, egoki irudituz gero, bestelako neurriak hartu ahal izango ditu ikasle bakoitzarek in.
- 24:00etatik aurrera, ikastetxera heltzen diren ikasle guztiek sarrera erregistratu beharko dute harreran.

Ez-egoteak

- Ikasleren batek asteburu batean kanpoan izan behar badu, Harreran adierazi beharko du nora joango den eta logelako giltza utzi beharko du bertan. Ikastetxe Nagusitik kanpo gaua pasatzeko, behar-beharrezkoa da zuzendaritzar jakinaraztea.

Bisitak

- Ikastetxetik kanpoko norbait ikasle bat ikustera badator, ikasleak harrera-gelan hartuko du bisitaria. Gauerdia ondoren ikastetxea utzi beharko du bertakoa ez den pertsona orok.
- Gizonezkoek ez dute, familiakoak ez badira, nesken logeletan sartzerik izango, ezta emakumezkoek ere mutilenetan.

Jaiak

- Ikastetxe Nagusi barruan edozein ospakizun, afari, urtebetetze, etab. egiteko, zuzendaritzaren onspena beharko da eta, ospakizuna prestatzeko zein egiteko orduan, gehiegikeriak saihestuko dira eta gainerako ikaskideak errespetatuko.

Isiltasuna

- Ikasle guztiek beren ikasketa eta atsedeen orduak errespetatu daitezkeen eskubidea dute. Isiltasuna ezinbesteko baldintza da horretarako eta bereziki bete beharko da gaueko 23:00etatik aurrera. Arau hori etengabe ez betetzea hutsegite larritzat hartuko da.

Jarrerak

- Ikastetxeko langileek eta ikasleek errespetuzko tratua izango dute elkarrekiko. Zerbitzuren baten inguruan kexarik edukiz gero, zuzendaritzaren bidez adierazi beharko da eta ez zuzenean. Iradokizunen inprimakiak ere erabili daitezke horretarako.
- Ikasle guztiek egin behar dute ahalegina euren taldeak ikastetxeko kideentzat irekita egon daitezkeen.
- Ikasle oro aurkeztuko da jendaurrean egoki eta kaleko jantzian, jangelan batez ere.
- Beren edukiagatik ikastetxe Nagusiaren espirituaren aurkakoak diren jarraitzaileak eta jarduerak baztertu egingo dira. Halakoak dira, besteak beste: beteranotasun abusua (Ikastetxe Nagusitik aldi baterako edo behin betiko kaleratzea ekar dezake), alkohola ikastetxean sartzea eta kontsumitzea, dirua jokatzeko, drogak edukitzea eta kontsumitzea, gauzak jantzi edo ekipamendua edo inoren jabetzako gauzak kaltetzea, etab.
- Legea betez, ezin izango da erre horretarako izendatutako lekuetan izan ezik.

Ikasle berrien integrazioa

- Ikastetxeko elkarbizitzara ko oso kaltegarriak dira egoiliar berrien etorrera tentsioz betetzen saiatzen direnen jarraitzea. Ikastetxe Nagusiak falta oso larritzat hartzen ditu, elkarbizitza eta ikasketa eragotziz, egoera neketsuak eragiten dituztenen jokoak.

Arau hauen aurkako jokoak

- Aurreko arau horiek noizean behin edo era jarraituan betetzen ez dituenari eta jarrera horiek babestu edo pasibotasunez jokatzeko duenari kargu hartuko dio Ikastetxeko zuzendaritzak, egoerak duten garrantziaren eta maiztasunaren arabera. Kargu hartzea era hauetara egin daiteke: hitzez soilik, ohartarazpen formal eginez, familiari oharra idatziz, kanpora bidalia izan daitekeela ohartaraziz edo baita kanpora bidaliz eta Unibertsitateari jakinaraziz ere, egoera hori hala eskatuz gero, eta kasu zehatz bakoitza baloratuz beti ere.

V. Tokia Berritzeko irizpideak

Ikasturtea amaitu aurretik, egoiliarrek toki berritzeko eskaera egin behar dute, horrela nahi badute. Ikastetxe Nagusian aurreko ikasturtean egon izanak ez du esan nahi hurrengo ikasturtean, ezinbestez, ikasleari lekua berrituko zaionik.

Ikaslearen egoera globalari erreparatuko zaio, honako alderdi hauek aintzat hartuz batez ere: akademikoa, elkarbizitzarena, parte hartzearena eta garapen pertsonalarena.

Berritze kontuak ekainean eta uztailean zehar erabakiko dira, salbuespen kasuetan izan ezik.